

AÑARBEKO URAK-EN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

1. ARDATZA: KUDEAKETA

1.1. Euskararen kudeaketa orokorra

- Euskara plana indarrean izango da eta erakundeak aurrerapen-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak eta baliabideak izango ditu. Euskara batzordeak egingo du kudeaketa planaren jarraipena eta zuzendaritzak parte hartuko du.
- Euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatuko da (dagokion Plan Estrategikoan).

1.2. Lidergoa

- Zuzendaritzak parte hartuko du Euskara batzordean.

1.3. Langileak

- Langile berri baten harrera euskaraz egingo da lehentasunez. Harrera planean hizkuntz politikari buruzko informazioa eta Euskara Planari buruzkoa jasoko da.
- Lanpostuei buruzko informazioa, ezaugarriak eta funtzio orriak ele bietan izango dira.
- Nominak ele bitan egingo dira. Lan kontratuak, T-10 eta hantzeko dokumentuetan langileak hizkuntza aukeratu ahal izango du, enpresak euskaraz izatea bultzatuko duelarik.

1.4. Gaitasuna

- Arlo batek antolaketa-aldaketak egiten baditu (lanpostu berriak sortzea edo dauden funtzioak aldatzea, adibidez), aldaketa horiek lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunei eta/edo derrigortasun-datei eragiten dieten ebaluatu beharko da. Azterketa hori Euskara Batzordeak egingo du, eta dagokion proposamenarekin txosten bat egingo du. Txosten hori Zuzendaritzak onartu beharko du behin betiko.
- Euskara Batzordearen proposamena jaso ondoren, eta lanpostuen derrigortasun datak eta hizkuntza eskakizunak izendatzeko edozein erabaki hartu aurretik, langileen ordezkarien iritzia jaso eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari ere txostena eskatuko da.
- Aurreko txostenak jaso ondoren, Administrazio Kontseiluak hizkuntza eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun datak ezartzeko erabakia hartuko du. Era berean, horren arabera lanpostu-zerrendan egin beharreko aldaketak egitea onartuko du.

1.5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategien komunikazioa

- Añarbeko Urak-ek euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatuko die herritarrei eta gainerako interes taldeei (beste administrazio publikoak, hornitzaileak, elkarteak, enpresa pribatuak, etab.).
- Horrez gain, erakundeak euskararen erabilera normalizatu eta biziberritzeko beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartuko du, bere praktika onak ezagutaraziz eta besteen praktiketatik ikasiz.

1.6. Hizkuntza-klausulak

- Hizkuntza irizpideak txertatuko dira enpresak kontratatzerakoan zein hitzarmenak sinatzean eta horien betetzearen jarraipena egiteko sistema definitu eta inplementatu egingo da.

2. ARDATZA: ERABILERA

2.1. Zerbitzu-hizkuntza

2.1.1. Irudia

- Errotulazioa eta ikus-entzutekoak
 - Lan zentroen kanpoko eta barneko errotuluak nahiz seinalizazioa bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, euskara lehenetsiz. Euskarazko eta gaztelaniazko idazkera antzekoa denean euskara hutsean baino ez dira egongo (ortografia berdintsua izateagatik edo beste arrazoiren bategatik oso ulergarriak diren kasuetan).
- Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa oharra, paper-gauzak, etab.:

- Irudi korporatiboaren osagaiak: identifikazio elementu guztiek euskaraz behintzat egon behar dute (logoa, karpetak, sobreak, papertegia eta ziguiluak...).
- Publizitatea: euskarazko hedabideetan iragarkiak euskaraz bakarrik egingo dira eta gainontzekoetan bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) egingo dira, euskara lehenetsiz.
- Kanpo publizitate euskarriak (banderolak, kartelak...), seinalizazioa eta *merchandising-a*: bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskara lehenetsiz. Euskarazko eta gaztelaniazko idazkera antzekoa denean euskara hutsean baino ez dira egongo.
- Argitalpenak eta ikus-entzunezko produktuak: bi hizkuntzetan egongo dira eta euskara lehenetsiko da.
- Jendaurreko ekitaldiak: euskararen erabilera ziurtatuko da ahoz eta idatziz, eta euskarari lehentasuna emango zaio (hitzaldia euskaraz egin, hitzaldia euskaraz hasi edo amaitu, aipamen nagusiak euskaraz egin...).

- Ingurune digitala
 - Webgunea lehen aldiz bisitatzen dutenek hasierako orria euskaraz topatuko dute. Hizkuntza aukeratzeko modua argi azalduko da webgunearen edozein ataletan.
 - Web orria bi hizkuntzetan sortuko da eta gehitzen diren eduki guztiak bi hizkuntzetan izango dira ere bai (testuak, bideoak, infografiak, etab.)
 - Sare sozialetan aurreko irizpide berdina kontuan izango da eta gainera euskarari lehentasuna emango zaio formula desberdinak erabiliz: euskarazko testua lehenengo postuan, etab.

2.1.2. Herritarrekiko harremanak

- Harreman idatziak zerbitzua eskaintzeko orduan
 - Bidaltzen diren gutun guztiak ele bitan igorriko dira eta bi zutabe izango dituzte (ezkerrekoan euskarazko bertsioa). Erakunde batek, korrespondentzia soilik euskaraz jaso nahi duela adierazten badu, eskaera onartu egingo da.
 - Gutunaren jasotzailea Euskadin kokatutakoa baldin bada, entitatearen datuak, kargua eta helbidea euskaraz soilik idatziko dira.
 - Udaletara igortzen diren faktura guztiak ele bitan idatziko dira (orriaren alde batetik euskaraz eta bestetik gaztelaniaz) edo, horrela eskatuz gero, euskaraz soilik bidaliko dira
 - Idatzi estandar, formulario, eskabide, ziurtagiri eta gisako dokumentu guztiak ele bietan izango dira.
 - Idatziz egiten diren jakinarazpen orokorrak hizkuntza bietan egingo dira.
 - Bezeroak edo herritarrak euskaraz egindako eskabideak edo kontsultak euskaraz soilik erantzungo dira.
- Ahozko harremana zerbitzua eskaintzeko orduan
 - Enpresaren egoitza guztietan (bulegoak, presa, Petritegi, Loiola eta SAT) lehenengo hitza (bai aurrez aurre, bai telefonoz) beti euskaraz egingo da eta solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du harreragileak.
 - Harreragileak ezin badu solaskidearen hizkuntza aukera bermatu, lankide elebidun bati eskatu beharko dio laguntza eta solaskideari ez dio inoiz hizkuntza aldatzeko eskaera egingo.
 - Hartzaile zehatzik gabeko mezuak zabaltzen direnean gailu automatikoen bidez, lehenik euskaraz emango dira.

2.2. Lan-hizkuntza:

2.2.1. Barne-harremanak

- Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

- Barne errotulazio txikia: enpresa-atalak (solairuak, gelak...), norabidezkoak (irteerak, etab.), identifikaziokoak (karguak, etab.), segurtasun- eta osasun-mezuak, Kudeaketa, Ingurumen, Segurtasun, etab.-etako aitortza-agiriak, eta antzekoak: euskarazko testua gaztelaniakoaren aurretik joango da.

Aldi berean, langileek konpartitzen dituzten eremuetako (artxibategia, office-a...) errotulazioan euskara joango da gaztelaniaren aurretik.

Euskarazko eta gaztelaniazko idazkera antzekoa denean euskara hutsean baino ez dira egongo.

- Kanpoko zerbitzuak eskaintzen dituzten baliabideetako (su-itzalgailuak, fotokopiagailua, jan-edarien makina, etab.) errotulazioek ere aurreko baldintzak bete beharko dituzte.
- Sare informatiko orokorreko karpeta nagusien izenak (gutxienez lehen eta bigarren mailakoak) euskaraz idatziko dira.

○ Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala

- Lankide guztiei bidalitako jakinarazpen edo zirkularrak ele bietan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez. Horrez gain, iragarki taulak, intraneta edo beste edozein barne komunikazio tresna ele bietan prestatuko da ere bai.
- Lan-bileretako tresnak: gobernu-organoen bileren idatzizko euskarri guztiak (deialdiak, gai-ordenak, aktak, txostenak, etab.) bi hizkuntzatan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez.
- Planifikatutako bilera teknikoan kasuan, deialdiak, gai-ordenak eta aktak ele bietan idatziko dira.
- Dokumentu ofizial guztiak ele bietan idatziko dira (argitalpenak, estrategia, memoria, kalitate, prebentzio, komunikazio etab.-eko dokumentuak). Kontrol fitxak, zerrendak, lan-aginduak, parteak eta bestelako dokumentuak ere elebidunak izango dira.
- Euskararen idatzizko erabilera bultzatuko da, gehienbat C1 eta C2 hizkuntza eskakizuna ziurtatuta dutenen langileen artean.

○ Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala

- Lan-bileretako ahozkoak: gobernu-organoen bileretan gai-zerrendako puntuen erdiak gutxienez euskaraz azalduko dira. Aldi bereko interpretazio-zerbitzua eskainiko da beti.
- Bilera teknikoan kasuan, komunikazio hizkuntza zein izango den erabakitzea sustatuko da eta, ados egonez gero, euskararen alde egingo da. Era progresiboan euskaraz egin daitezen sustatuko da.
- Telefonoz eta aurrez aurreko harremanetan komunikazio hizkuntza euskara izatea bultzatuko du enpresak.

2.2.2. Kanpo-harremanak

- **Administrazioa**
 - Administrazioekin eta bestelako erakunde publikoekin idatzizko harreman formalak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, euskara lehenetsiz. Beste idatzi informalak (posta elektronikoak, dokumentu laburrak, etab.) euskaraz egitea gomendatu eta sustatuko da.
 - Euskaraz egindako idatzizko eskabideak edo kontsultak euskaraz soilik erantzun dira.
 - Ahozko harremanak euskaraz egitea gomendatu eta sustatuko da (batez ere langile euskaldunen artean).
 - Idatzizko harremanak euskaraz egitea gomendatu eta sustatuko da, batez ere testu laburrak idaztean eta lan esparru informalean, eta gehienbat C1 eta C2 hizkuntza eskakizuna ziurtatuta duten langileen artean. Azken hauen hizkuntza autonomia bultzatuko da dokumentuak itzultzerako orduan, horretarako sortzen joaten diren tresna eta baliabide informatikoak eskura jarriko zaizkielarik.
- **Erakunde pribatuak eta bestelako harremanak (aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.)**
 - Erakunde pribatuekin eta bestelakoekin idatzizko harreman formalak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, euskara lehenetsiz. Beste idatzi informalak (posta elektronikoak, dokumentu laburrak, etab.) euskaraz egitea gomendatu eta sustatuko da.
 - Ahozko harremanak euskaraz egitea gomendatu eta sustatuko da (batez ere langile euskaldunen artean).
 - Idatzizko harremanak euskaraz egitea gomendatu eta sustatuko da, batez ere testu laburrak idaztean eta lan esparru informalean, eta gehienbat C1 eta C2 hizkuntza eskakizuna ziurtatuta duten langileen artean. Azken hauen hizkuntza autonomia bultzatuko da dokumentuak itzultzerako orduan, horretarako sortzen joaten diren tresna eta baliabide informatikoak eskura jarriko zaizkielarik.

2.2.3. Prestakuntza

- **Laneko prestakuntza**
 - Euskara trebakuntza lantegiko formazioaren barruan txertatuko da. Prestakuntza-plan bat egingo da, ahal den neurrian lanpostu bakoitzerako ezarritako hizkuntza-eskakizunera hurbiltzeko.
 - C1 eta C2 hizkuntza eskakizuneko langileei ikastaroak euskaraz eskaintzeko saiakera egingo da arlo eta maila berdineko ikastaroak sortzeko aukera dagoenean.
 - Prestakuntza euskaraz eman ezin denean, euskararen presentzia nola ziurtatu aztertuko da (aurkezpena euskaraz, zati bat euskaraz, eskura ematen den materiala euskaraz...).
 - Ikastaroen kudeaketa ele bietan egingo da (inkestak, izen-emateak, asetasun-inkestak, etab.).

2.2.4. Baliabide informatikoak

- Sistema operatiboa eta aplikazio informatiko estandarrak euskaraz jartzeko aukera zabalduko da.
- Ordenagailuetako karpeten izenak euskaraz jartzea gomendatuko eta sustatuko da. Dokumentuen izenak euskaraz jartzea gomendatuko da.
- Neurrira egindako aplikazio informatiko berriek derrigorrez hizkuntza aukera izango dute. Orain arte egindakoen kasuan, euskarazko bertsioa sortzeko aukera baloratuko da.
- Hizkuntza-autonomiarako tresna informatikoak instalatu edo ezagutzera emango dira langile guztiei (itzultzaile neuronalak, hiztegiak, zuzentzaile ortografikoak, etab.).

2.2.5. Sortze-hizkuntza

- Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileek laneko testuak euskaraz sortzea sustatuko da, testu labur eta ulerterrazekin hasita, hala nola lankideen arteko mezuak edo ohar motzak.
- Dokumentuak bi hizkuntzetan egin behar direnean, teknologiak eskaintzen dituen baliabideak (itzultzaile automatikoak) erabili ahal izango dira, baina funtsezkoa da testuak norberak berrikustea eta, beharrezkoa denean, zuzenketak egitea.
- Langileak itzultzaile automatikoaren berrikuspenak eta zuzenketak egiteko hizkuntza gaitasunik ez badu, itzultzailearengana joko du.

2.2.6. Itzulpen irizpideak

- Añarbeko Urak-ek era arrazionalizatuan erabiliko ditu itzulpengintza eta interpretazio-zerbitzuak. Idatzi bat bi hizkuntza ofizialetan egin behar denean, ez da sistematikoki itzultzailearengana joko. Eredu normalizatuak egonez gero, horiek lehentasunez erabiliko dira, eta, bestela, langileen hizkuntza gaitasunaren arabera jokatuko da.
 - a) Euskara gaitasuna duten langileak: langileak dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duenean edo egiaztatu gabe ere gaitasuna duenean:
 - Testu laburrak edo dagoeneko itzulitakoen moldaketak bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz, sortuko ditu. Testuen zuzentasuna ziurtatze aldera, behar duenean, itzultzaileaz baliatu ahal izango da.
 - Testu luze berriak, euskaraz sortzen saiatuko da. Laguntza behar izanez gero, itzultzaileaz baliatu ahal izango da.
 - b) Euskara gaitasunik ez duten langileak: langileak dagokion hizkuntza eskakizuna gainditu gabe duenean eta gaitasunik ez duenean:
 - Itzultzaileari bidaliko dizkio herritarrei, enpresei edo beste herri administrazioei zuzendutako testuak, baita barruko txostenak ere, kanpora doazen baimen edo jakinarazpenetan txertatu behar badira.
 - Jasotzen dituen euskarazko idazki guztiak ez ditu, besterik gabe, itzultza bidaliko. Agiria ulertzen ez badu, itzultzaile automatikoa

erabiliko du edo bere arloko langileei eskatuko dio laguntza, edukia ahoz azaltzeko edo idatziz laburpen bat egiteko. Nolanahi ere, euskara hutsez jasotako testu jakin bat ez itzultzeak interesatuari kalteren bat eragin diezaiokenean, testu hori itzultzeraz joko da.

- Interpretazio zerbitzua: erakundearen batzorde eta gobernu organoetan kide guztien aldetik euskarazko ulermena bermatuta ez dagoenean eskainiko da interpretazio zerbitzua. Kasu hauetan, euskara gaitasuna duenak euskaraz hitz egin dezala sustatuko/gogoraraziko da.
